

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

**ITZULPENA<sup>1</sup>**

---

Araua: EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN 296/2008 (EE) ERREGELAMENDUA, 2008ko martxoaren 11koa, pertsonak mugak igarotzeko Erkidegoko arau-kodea (Schengen Muga-kodea) ezartzen duen 562/2006 (EE) Erregelamendua aldatzen duena, Batzordeari esleitutako betearazte-eskumenei dagokienez.

---

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakunde (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta honek ez du inolako balio juridikorik.

---

<sup>1</sup> Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da :  
«REGLAMENTO (CE) N° 296/2008 DEL PARLAMENTO EUROPEO Y DEL CONSEJO, de 11 de marzo de 2008, que modifica el Reglamento (CE) no 562/2006, por el que se establece un código comunitario de normas para el cruce de personas por las fronteras (Código de fronteras Schengen), por lo que se refiere a las competencias de ejecución atribuidas a la Comisión» (*Europar Batasunaren Egunkari Ofiziala, L 97/60, 2008/4/9koa*)

2008/296/EE erregelamendua (EBren Egunkari Ofiziala, L 97/60 2008/4/9koa)

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

## **EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN 296/2008 (EE) ERREGELAMENDUA**

**2008ko martxoaren 11koa,**

**pertsonak mugak igarotzeko Erkidegoko arau-kodea (Schengen Muga-kodea) ezartzen duen 562/2006 (EE) Erregelamendua aldatzen duena, Batzordeari esleitutako betearazte-eskumenei dagokienez.**

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNEN KONTSEILUAK,

Europar Batasuna eratzekeo Tratatuak, eta, bereziki, haren 62. artikuluen 1. paragrafoa, eta 2. artikuluen a) idatz-zatia aztertu dute,

Batzordearen proposamena aztertu dute, Eskualdeen Komitearen irizpena aztertu dute,

Tratatuaren 251. artikuluan ezarritako prozedurari jarraiki (<sup>1</sup>),

Honako hauek kontuan hartuta:

(1) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 562/2006 (EE) Erregelamendua xedatutakoaren arabera (<sup>2</sup>), Kontseiluaren 1999ko ekainaren 28ko 1999/468/EE Erabakiaren arabera, Batzordeari esleitutako betearazte-eskumenak gauzatzeko prozedurak ezartzen dituenak xedatutakoaren arabera, hainbat neurri jakin hartu behar dira (<sup>3</sup>).

(2) 1999/468/EE Erabakia 2006/512/EE Erabakiaren bitartez aldatu zen, Tratatuaren 251. artikuluan xedatutako prozeduraren arabera, egintza batean funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko irismen orokorreko neurriak hartzeko kontrol-dun arautze-prozedurak sartu baitzituen, baita funtsezkoak ez diren elementu horietako batzuk ezabatzeko edo funtsezkoak ez diren elementu horiek osatu edo berritzeko neurriak ere.

(3) Europako Parlamentuaren, Kontseiluaren eta Batzordearen Aitorpenaren (<sup>4</sup>), 2006/512/EE Erabakiari buruzkoaren, arabera, Tratatuaren 251. artikuluan aurreikusitako prozeduraren arabera hartutako egintzetan, dagoeneko indarrean daudenetan, kontrol-dun arautze-prozedura aplikagarria izan dadin, egintza horiek aplikagarriak diren prozeduretara egokitu behar dira.

(4) Batzordeari eskumenak eman behar zaizkio, mugak jagoteari buruz hainbat neurri praktikoa hartu eta eranskin batzuk aldatzeko. Neurri horiek irismen orokorra dutenez, eta 562/2006 (EE) Erregelamenduan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzen dituzenez, eta batzuetan Erregelamendu hori funtsezkoak ez diren elementuekin osatzen duenez, 1999/468/EE Erabakiko 5 bis artikuluan xedatutako kontrol-dun arautze-prozeduraren arabera hartuko dira.

(5) 562/2006 (EE) Erregelamendua aldi baterako eten zituen Batzordeari egotzitako betearazte-eskumenak. 2006/512/EE Erabakiari buruzko aitorpenean, Europako Parlamentuak, Kontseiluak eta Batzordeak adierazi zuten Erabaki horrek irtenbide egoki eta horizontala ematen ziola Europako Parlamentuak elkarrekin erabakitako prozeduren arabera onartutako tresnak aplikatzean ezarri nahi duen kontrola egiteko, eta beraz, horretarako, betearazte-eskumenak Batzordeari eman behar zaizkio denbora-mugarik gabe. Europako Parlamentuak eta Kontseiluak, halaber adierazi zuten Batzordeari eskumenak denbora-muga baten barne ematen dizkioten tresnetako xedapenak baliogabetzeko, ahal bezain laster

---

(1) Europako Parlamentuaren irizpena, 2007ko azaroaren 14koa (Egunkari Ofizialean oraindik ere argitaratu gabea) eta Kontseiluaren Erabakia, 2008ko martxoaren 3koa.

(2) L 105 EO, 2006.4.13koa, 1.or.

(3) C 184 EO, 1999.7.17koa, 23. or. 2006/512/EE Erabakiak (L 200 EO, 2006.7.22koa 11.or.) aldatutako Erabakia.

(4) C 255 EO, 2006.10.21ekoa, 1. or.

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

beharrezko proposamenak egingo zirela. Kontrol-dun arautze-prozedura onartu ondoren, 562/2006 (EE) Erregelamenduan ageri den xedapena, aldi baterako muga ezartzen duena, baliogabetu egin behar da.

(6) Ondorioz, 562/2006 (EE) Erregelamendua aldatu egin behar da.

(7) Europar Batasunaren Tratatuari eta Europako Erkidegoa eratzen duen Tratatuari atxikita doan Danimarkaren jarrerari buruzko Protokoloko 1. eta 2. artikuluei jarraiki, Danimarkak ez du Erregelamendu honen onarpenean parte hartuko, eta beraz, Danimarka ez du Erregelamendu honek arautu edo lotesten. Europako Erkidegoa eratzeko Tratatuaren hirugarren ataleko IV. tituluak xedatutakoari jarraiki, Erregelamendu honek Schengengo Altxorra garatzen duenez, aipatutako Protokoloren 5. artikuluan xedatutakoari jarraiki, Danimarkak, Erregelamendu hau onartu ondoren, sei hilabeteko epea du Tratatu hori bere barne-zuzenbidean sartzeko erabakitzeko.

(8) Islandia eta Norvegiari dagokienez, Erregelamendu honek Schengengo Altxorraren xedapenak garatzen ditu, Europar Batasuneko Kontseiluak Islandiako Errepublikarekin eta Norvegiar Erreinuarekin egindako Hitzarmenean xedatutakoaren arabera. Hitzarmen hori bi Estatu horiek Schengengo altxorra gauzatu, aplikatu eta garatzeko parte-hartzeari buruzkoa da <sup>(2)</sup>, eta aipatutako xedapen horiek Kontseiluaren 1999/437/EE Erabakiko 1. artikuluko A idatz-zatian <sup>(1)</sup> aipatzen den esparruan aplikagarriak dira, hain zuzen ere Erabaki hori garatzeko arauari buruzkoa.

(9) Suitzari dagokionez, Erregelamendu honek Schengengo Altxorraren xedapenak garatzen ditu, Europar Batasunak, Europako Erkidegoak eta Helvetiar Konfederazioak egindako Hitzarmenean xedatutakoaren arabera. Hitzarmen hori Helvetiar Konfederazioak Schengengo altxorra gauzatu, aplikatu eta garatzeko elkartzeko duen aukerari buruzkoa da, eta 1999/437/EE Erabakiko 1. artikuluko A idatz-zatian xedatutako esparruaren barne dago, Kontseiluaren 2004/849/EE <sup>(3)</sup> eta 2004/860/EE Erabakietako <sup>(4)</sup> 4. artikuluko 1. paragrafoetan xedatutakoaren arabera ulertu behar da.

(10) Erregelamendu honek Schengengo Altxorraren xedapenak garatzen ditu, Erresuma Batuaren partaidetzarik gabe, Kontseiluaren 2000/365/EE Erabakiak, 2000ko maiatzaren 29koak, Erresuma Batua, Britainia Handia eta Ipar Irlandak Schengengo altxorrekiko xedapen batzuetan parte hartzeari buruzkoak, xedatutakoaren arabera <sup>(5)</sup>. Beraz, Erresuma Batuak ez du Erregelamendu honen onarpenean parte hartuko, eta beraz ez du Erregelamendu honek arautu edo lotetsiko.

(11) Erregelamendu honek Schengengo Altxorraren xedapenak garatzen ditu, Irlandaren partaidetzarik gabe, Kontseiluaren 2002/192/EE Erabakiak, 2002ko otsailaren 28koak, Irlandak Schengengo altxorrekiko xedapen batzuetan parte hartzeko eskaerari buruzkoak, xedatutakoaren arabera <sup>(6)</sup>. Beraz, Irlandak ez du Erregelamendu honen onarpenean parte hartuko, beraz ez du Erregelamendu honek arautu edo lotetsiko.

---

(1) EO L 176, 1999.7.10. 36. or.

(2) EO L 176, 1999.7.10. 31. or.

(3) Kontseiluaren 2004/849/EE Erabakia, 2004ko urriaren 25ekoa, Europar Batasunaren izenean, eta Europar Batasunaren, Europako Erkidegoaren eta Helvetiar Konfederazioaren artean, Schengengo altxorra gauzatu, aplikatu eta garatzeko Estatu horren parte hartzeari buruzko Hitzarmena sinatzeari buruzkoa, eta bertako xedapen batzuk behin-behineko aplikatzeari buruzkoa (L 368 EO, 2004.12.15ekoa, 26. or).

(4) Kontseiluaren 2004/860/EE Erabakia, 2004ko urriaren 25ekoa, Europar Batasunaren izenean, eta Europar Batasunaren, Europako Erkidegoaren eta Helvetiar Konfederazioaren artean, Schengengo altxorra gauzatu, aplikatu eta garatzeko Estatu horren parte hartzeari buruzko Hitzarmena sinatzeari buruzkoa, eta bertako xedapen batzuk behin-behineko aplikatzeari buruzkoa (L 370 EO, 2004.12.15ekoa, 78. or).

(5) L 131 EO, 2000.6.1ekoa, 43. or.

(6) L 64 EO, 2002.3.7koa, 20. or.

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

HONAKO ERREGELAMENDU HAU ONARTU DUTE:

*1. artikulua*

**Aldaketak**

562/2006 (EE) Erregelamendua aldatu egingo da, eta horrela idatzita geratuko da:

1) 12. artikuluko 5. paragrafoaren ordez honako testu hau jarriko da:

«5. Jagoletzari buruzko neurri osagarriak hartu ahal izango dira. Neurri horiek Erregelamendu honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko erabiliko dira, eta Erregelamendua osatu egingo dute, eta 33. artikuluko 2. paragrafoan aurreikusitako arautze-prozeduraren arabera hartuko dira.».

2) 32. artikulua ordez honako testu hau jarriko da:

«32. artikulua

**Eranskinak aldatzea**

III, IV eta VIII. eranskinak 33. artikuluko 2. paragrafoko kontrol-dun arautze-prozeduraren arabera aldatuko dira.».

3) 33. artikuluko 2. paragrafoaren ordez honako testu hau jarriko da:

«2. Honako paragrafo hau aipatzen duten kasuetan, 1999/468/EE Erabakiko 5 bis artikuluko 1 eta 4. paragrafoak eta 7. artikulua izango dira aplikatzekoak, 8. artikuluan xedatutakoa betez.».

4) 33. artikuluan, 4. paragrafoa ezabatuko da.

*2. artikulua*

**Indarrean sartzea**

Erregelamen du hau *Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean* argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Erregelamendu honetako elementu guztiak derrigorrezkoak izango dira, eta Europako Erkidegoa eratzen duen Tratatuaren arabera, estatu kide guztietan zuzenean aplikagarriak izango dira.

Estrasburgon eginga, 2008ko martxoaren 11n.

*Europako Parlamentuaren izenean, H.-G. PÖTTERING presidentea*

*Kontseiluaren izenean, J. LENARČIČ presidentea*

2008/296/EE erregelamendua (EBren Egunkari Ofiziala, L 97/60 2008/4/9koa)